# ARAUDIA 2023 – Zegama-Aizkorri Kilometro Bertikala

| | |
|---|---|
| **1. Data eta lekua** | **Zegama-Aizkorri KB 2023ko maiatzaren 12an ospatuko da, irteera arratsaldeko 16:00-etan izango delarik.** |
| **2. Ibilbidea** | Proba, Zegamako trenaren apeaderoa, baina km 1 lehenago dagoen bidegurutzetik, irten, eta Arriaundi gainera igoko da. **5.200** metroko luzera du eta **1015** metroko desnibel positiboa izango du. |
| **3. Partehartzea** | 18 urtetik gorako atleta, mendizale eta kirolari guztiek dute proban parte hartzeko aukera arautegi honetan adierazitako guztia onartu eta zehaztutako baldintza guztiak betetzen badituzte behintzat. Gehienez, **250 lagun onartuko dira.** |
| **4. Mailak** | (proba ospatzen den egunean duten adina)<br><br>**Gizonezkoen maila**<br>18 urtetatik gorakoak.<br><br>**Emakumezkoen maila:**<br>18 urtetatik gorakoak |
| **5. Izen-ematea eta zozketa** | Gehienez 250 korrikalarik parte hartu ahal izango dute. **Aurre-inskripzioa urtarrilaren 30etik otsailaren 9ra izango da.**<br>Maila honetako frogek dakartzaten hainbat konpromiso kontuan izanik, antolakuntzak **50 dortsal** erreserbatuko ditu konpromiso horiei erantzuteko.<br>Bestalde, azken edizioan denborarik onenak lortu dituzten korrikalarien presentzia bermatzeko, antolakuntzak **beste 50 dortsal erreserbatuko** ditu korrikalari hauentzat.<br>Geratzen diren dortsalak **(150) zozketatu egingo dira otsailaren 24an**. Aurrez aipatu bezala, dortsala lortzen duen korrikalaria ez da zozketa prozesuan sartuko.<br>Lehenengo aldiz zozketan parte hartzen duten korrikalariek, zozketarako zenbaki bakar bat izango dute. Aurreko urteetan zozketan parte hartu eta dortsalik suertatu ez zaion korrikalariari, zenbaki bat gehiago gehituko zaie, zozketan parte hartu eta dortsalik izan ez duten urte bakoitzeko. Korrikalariren bati dortsala suertatu bazaio aurreko urteren batean, hurrengo urteetako zozketak bakarrik hartuko dira kontutan. |
| **6. Prezioa** | Kuota **25€koa** izango da. Zenbateko honek zera bermatzen dute: proban parte hartzeko eskubidea, erantzukizun zibileko asegurua eta ezbeharretakoa, antolakuntzak parte-hartzaileentzako atondutako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea, oroigarri moduko elastikoa eta antolakuntzak probarako lor ditzakeen sarien zozketan parte hartzeko aukera. |

# ARAUDIA 2023 – Zegama-Aizkorri Kilometro Bertikala

| | |
|---|---|
| **7. Seinaleztapena** | Ibilbidea behar bezala **seinaleztatuta egongo da**, kartel adierazleekin eta balizaje zintekin. |
| **8. Hornidura** | Postu bat atonduko da helmugakoaz gain. |
| **9. Sariak** | **Gizonezko Absolutoak:**<br><br>1. Txapela, Garaikurra eta 500€ eskudirutan<br><br>2. Garaikurra eta 300€ eskudirutan.<br><br>3. Garaikurra eta 150€<br><br>**Emakumezko Absolutoak:**<br><br>1. Txapela, Garaikurra eta 500€ eskudirutan.<br><br>2. Garaikurra eta 300€ko eskudirutan<br><br>3. Garaikurra eta 150€ eskudirutan |
| **10. Dortsalen banaketa** | Dortsalak udaletxeko arkupeetan banatuko dira, **2022ko maiatzaren 27an, eguerdiko 13etatik 16rak bitartean.** |
| **11. Ingurumena** | Lasterketa, bere zatirik handienean, edertasun natural handiko parajeetatik igarotzen da eta, hau horrela, ingurunea ahal beste zaintzeko eta zaborrak kontrol-guneetatik kanpora ez botatzeko eskatuko zaie partehartzaile guztiei.<br>Oinarri-oinarrizko arau hau betetzen ez duen korrikalari oro probatik kanpora utzi ahal izango da. |
| **12. Osasun-Laguntza** | Antolakuntzak sorospen- eta salbamendu-zerbitzuak atonduko ditu. Era berean masaje-zerbitzuak, dutxak, komuna eta aparteko beharren bat duten edota ondoezak jota iristen diren kirolariei aurreneko laguntza emango dieten medikuak ere izango dira helmugan. |
| **13. Segurtasuna** | Antolakuntzak, aurretik Lasterketako Batzordearekin hala adostuz gero, proba ordezko ibilbidetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko eta, eguraldiak hala eskatzen badu, KB-a bertan behera uzteko eskubide osoa izango du. |
| **14. Laguntza ezbeharretan** | Parte-hartzaileek betekizun izango dute istripuren bat izan duen edonor laguntzea eta kontrol-guneetan edozein ezbeharren berri ematea. |
| **15. Erantzunkizuna** | Antolakuntzak erantzukizun oro ukatuko du istripuren bat gertatuz gero edota zabarkeriaz jokatzen bada; eta baita parte-hartzaileen objetu pertsonalei dagokienean ere, xede horrekin |

| | |
|---|---|
| | kontsigna-zerbitzu bat izango baita dortsalak jasoko diren tokian bertan. Horrela bada, **parte-hartzaileek izango dute** euren buruari edota hirugarren pertsonei eragindako kalte ororen erantzukizuna. |
| **16. Derrigorrezko materiala** | Parte hartzaileek derrigorrezkoa dute lasterketak irauten duen denboran **zira** bat eramatea eta baita **hornidura likidorako edalontzia** ere. |
| **17. EMF-ren araudia** | **EMF**-ren KB-etako araudia bete beharko da froga honetan. |